

# BERDIN TASUNA ETA JABE KUNTZA



EMAKUMEEN  
JABEKUNTZARAKO ETA  
BERDINTASUNERAKO  
ESKOLA

2014ko apirila – ekaina




#BerdinEskolaVG

Antolatzailea  
BERDINTASUNERAKO  
ZERBITZUA

Laguntzailea  
MONTEHERMOSO  
KULTURUNEA

## INFORMAZIO GEHIAGO

Informaziorako telefona: 010  
BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA  
Santa Maria kalea, 11 –  
Etxanobetarren Etxea  
tel. 945 161 345  
[www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna](http://www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna)  
✉ [igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org](mailto:igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org)



Nazioarteko komunitateak berdintasunaren aldeko lanean jarraitzen du eta, beste helburu batzuen artean, emakumeen jabekuntzaren bidean lan egitea erabaki du, beren autonomia pertsonala eta eragina indar dezaten, maila indibidualean zein kolektiboan, beraien lekua gizartean, ekonomian eta politikan sendotzeko eta hobetzeko. Hori dela eta, Eskolak jarduera asko emakumeen jabekuntza indartzera bideratzen ditu, eta horiekin batera berdintasunaren helburua lortzeari begira dauden beste batzuk, emakumeei zein gizonari eskainiak.

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Vitoria-Gasteizko III. Plana 2014ko otsailaren 7an onartu zuen Gasteizko Udalak eta 2014an eta 2015ean gauzatuko da. Emakumeen jabekuntza eta balio aldaketa da planaren lau ardatzetako bat da. Ardatz horretan helburu eta jarduera batzuk ezarri dira honako arloetarako: “Genero-kontzientzia eta emakumeen jabekuntza-kontzientzia garatzea”, “Balio aldaketa sustatzea, gizarte rolak eta genero estereotipoak deuseztatuz”, “Errekurtso ekonomikoetarako sarbidea

eta kontrola hobetzea” eta “Emakumeen parte-hartze soziopolitikoak, erabaki eta eragin ahalmena”.

Era berean, Berdintasunerako III. Planean jasotzen da emakumeen jabeakunza eta berdintasunerako eskolaren jarduna indartzen jarraitzeko beharra, besteak beste, komunikaziorako bide egonkorak ezarriz, bai Udalaren langileekin, bai mugimendu feminista eta emakumeen elkarteekin. Horrela, proiektu kolektibo baterantz bidea egingo dugu, non jabeakunza eta berdintasunari buruzko behar eta eskaera guztiak jasotzen diren, inplikaturata dauden pertsona eta entitateek agerira atera ahal izango dituztelako.

Eskolako programazioa lan-ildo estrategikoetan oinarritu da eta desberdintasuna sortzen edo sor dezaketen beste aldagai batzuk kontuan hartzeko beharretik abiatuta ere diseinatu da. Bestetik, gai eta lan-formatu anitzak biltzen ditu, pertsona ororen interesei eta beharrei erantzuna emateko asmoz.

## ILDO ESTRATEGIKOAK



**GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA**



**FEMINISMOA**



**IDENTITATEA, SUBJEKTIBOTASUN FEMENINOA ETA BALIO-ALDAKETA**



**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURREA HARTZEA**



**KULTURA-ANIZTASUNA ETA ELKARTASUNA**



**ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEA**



**KULTURA BIRDEFINITZEA**



**KOMUNIKAZIOA ETA GAITASUNAK**

## NORI ESKAINIA



**HERRITARREI**



**EMAKUMEEI**



**EMAKUMEEN ELKARTEI**

## JARDUERAK

**IKASTURTEAREN AMAIERA  
HITZALDIAK  
ZINEFORUMA  
IRAKURLE KLUBA  
LANTEGIAK  
BESTE JARDUERA BATZUK**

**2013/14 IKASTURTEAREN AMAIERA**

Montehermoso Kulturunea  
*ekainak 13, 18:30ean*

6

**HITZALDIA** IRAGANETIK ETORKIZUNERA  
 EUSKARAREN BIDETIK. HAUSNARKETA BAT  
 GENEROAREN IKUSPEGITIK

*Jone Miren Hernández García*



8

**BERDINZINEMA ZINEFORUMA**

*Helena González Estévez*  
 ZINHEZBA Kultura Elkarte



10

**“ORDU BIOLETA”****IRAKURLE FEMINISTEN KLUBA**

*Begoña Etayo Ereña*



12

**LANTEGIA** FEMINISMOA PERSPEKTIBAN.  
 GURE HISTORIA BERRESKURATZEA

*Gladys Giraldo Velásquez*



15

**HITZALDIA** EMAKUMEAK BAINO GUTXIAGO:  
 GORPUTZAREN DISKURTZO ARAU-EMAILEAK  
 FEMINISMOAREN ETA DESGAITASUNAREN BIDEZ

*Melania Moscoso Pérez*



7

**LANTEGIA** EMAKUMEEN JABEKUNTZARAKO  
 PROIEKTUETAN LIDERGOA EGIN

*Maru Sarasola Anzola*



23

**“ETZAK LO HARTU” ANTZERKI-FORUMA** (18 eta 30 urte  
 bitartekoentzat)

*Berdintasunaren aldeko On:Giz Elkarte*



24

**LANTEGIA** GENERO INDARKERIAREN AURKAKO  
 OSOKO LEGEAREN BENETAKO EZARPENAREN  
 AZTERKETA, GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

*María Naredo Molero*



21

**LANTEGIA** EMAKUME BELTZAK EUSKADIN:  
IDENTITATEAK ETA AHALDUNTZEA

*Jeanne Rolande Dacouagna Minkette*



**LANTEGIA** EMAKUME BAZTERTUAK ETA MARJINALAK: GIZARTE BAZTERKERIA ETA MARJINAZIO PROZESUEI BURUZKO HURBILPEN TEORIKO BAT

*Dolores Juliano Corregido*



**LANTEGIA** (NIRE BURUA) ZAINTZEN IKASIZ

*Inmaculada Merino de Castro*



**LANTEGIA** ZAPALDUAREN ANTZERKIA

*Belén Nevado Méndez*



**HITZALDIA** INTERNET ETA SARE SOZIALAK  
JABEKUNTZARAKO

*Montserrat Boix Piqué*



**LANTEGIA** POSTA ELEKTRONIKOA  
ERABILTZEA ETA INTERNETEN  
OINARRIZKO ERABILERA

*Mentxu Ramilo Araujo*

(55 urtetik  
gorakoentzat)



**LANTEGIA** GENEROA, LIDERGOA ETA ADIMEN  
EMOZIONALA

*Miriam Ocio Saenz de Buruaga*



**LANTEGIA** JENDAURREAN HITZ EGITEKO TEKNIKAK

*Esti Redondo Tirado*



**LANTEGIA** HERRITARREN ESKUBIDEEN  
DEFENTZARAKO ZIBERFEMINISMOA

*Montserrat Boix Piqué*



# 2013/14 IKASTURTEAREN AMAIERA

**Ekainak 13, ostirala, 18:30ean**

ORTUÑO ARETOA – MONTEHERMOSO KULTURUNEA

PARTE-HARTZAILEAK:

***Iñaki García Calvo.***

Berdintasunerako Zerbitzuko  
zinegotzi-ordezkarria.

***Zuriñe Elordi Romero.***

Berdintasunerako Zerbitziburua.

**Hitzaldia**

Emakumeen ahalduntzea:  
hausnarketa feminista bat.

***Dolores Juliano Corregido.***

Irakaslea eta antropologoa, gutxiengo etnikoetan eta generoan aditua.

**Emanaldia**

***La Omega Rapera.***

*Sarrera librea izango da toki guztiak bete arte.*

Zeinu-mintzairako interpretaririk eta/edo haurtzandegirik behar baduzu, hiru egun lehenago esan (945 16 13 45 / [igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org](mailto:igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org))



# HITZALDIAK

**ORDUTEGIA:** 19:00etatik 21:00etara

**TOKIA:** Ortuño Aretoa - Montehermoso Kulturunea

*Sarrera librea izango da toki guztiak bete arte*

Zeinu-mintzairako interpretaririk eta/edo haurtzandegirik behar baduzu, hiru egun lehenago esan (945 16 13 45 / igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org)

Apirilak 2, asteazkena

## EMAKUMEAK BAINO GUTXIAGO: GORPUTZAREN DISKURTSO ARAU- EMAILEAK FEMINISMOAREN ETA DESGAITASUNAREN BIDEZ

Desgaitasuna duten emakumeen egoera feminismoak bere gain hartu ez duen gai bat da. Hizlariaren ustez, feminismoaren hainbat korrontek kontzeptu tresnen gabezia dute desgaitasuna duten emakumeen bizi-egoera azaltzeko. Hori dela eta, honako hausnarketa hau proposatzen du: diskurtso nagusiak eta alternatiboak batzuetan gertuegi egon daitezke desgaitasuna duten emakumeen zapalketaren berri egoki emateko. Ulertzeko modu honek, askotan biktimismotik eginikoak, paterernalismoa iraunarazten du eta lorpenak zailtzen ditu.

### HIZLARIA

**Melania Moscoso Pérez**

Zientzia politikoetan eta soziologian doktorea. Doktore-ondoko ikerlaria Temple Universityn eta Ikerketa Zientifikoen Goi Mailako Kontseiluan.

### MODERATZAILEA

**Silvia Apodaka Arrizabalaga**

Eginaren Eginez elkartearen zuzendaritza batzordekidea.

### HIZKUNTZA gaztelania

IDENTITATEA, SUBJEKTIBOTASUN FEMENINOA ETA BALIO-ALDAKETA



Maiatzak 7, asteazkena

## IRAGANETIK ETORKIZUNERA EUSKARAREN BIDETIK. HAUSNARKETA BAT GENEROAREN IKUSPEGITIK

Azkenengo hamarkadetan euskararen egoera soziala aztergai garrantzitsua bilakatu da gure artean. Hainbat ikerketa burutu dira hizkuntzaren errealitatea sakonki ezagutzeko eta bere etorkizuna hobeto irudikatzeko asmoz. Arlo honetan, ordea, gutxi dira genero ikuspegitik egindako hausnarketak, hizkuntza (kasu honetan euskara) gizartea antolatzen eta agintzen duen genero sistematik kanpo egongo balitz bezala. Hitzaldian, hain zuzen, euskararen ibilbideari genero begirada gehitu nahi zaio, emakumeek euskararen berreskurapenean, euskararen irakaskuntzan, erabileraren jarraibideetan.... izandako papera hobeto ezagutzeko.



GENERO-IKUSPEGIA  
SARTZEA

LAGUNTAILEA

Udaleko Euskara Zerbitzua.

### HIZLARIA

***Jone Miren Hernández García***

EHUko Gizarte antropologia irakaslea da. Euskararen egoera eta euskal kultura ikergai garrantzitsuak izan dira bere ibilbide profesionalean, beti ere antropologia feministarekin uztartuta.

### MODERATZAILEA

***Yolanda Viadero Villanueva***

Hikuntza normalizazioko teknikaria. Udaleko Euskara Zerbitzua.

### HIZKUNTZA

euskara





Ekainak 4, asteazkena

## INTERNET ETA SARE SOZIALAK JABEKUNTZARAKO

Internet eta sare sozialen erabilera ez dira onuragarriak bakarrik aisialdirako. Erreminta estrategikoak dira gure formazioan jarraitzeko, lanerako eta, zalantzarik gabe, aktibismoarako, herritar bezala ditugun eskubi-deen defentsarako, gizarte aldaketarako, teknopolitika-rako,... Helburua ez da erremintak ezagutzea soilik, baizik eta zertarako erabiltzen ditugun. Haietako bakoitzak baditu bere ezaugarriak eta erabilpena. Gure identitate digitalari buruz ere hausnarketa egin behar dugu. Zer da beste pertsonen, bilatzailean kontsulta egitean, guri buruz jakingo dutena? Informazio eta komunikazio teknologiak gure bizitzak aldatzen ari dira. Hitzaldi honetan nola egiten duten hausnartuko dugu, baita nola esku har dezakegun aktiboki alderdi batzuk aldatuko baditugu.

### HIZLARIA

#### **Montserrat Boix Piqué**

Informazio Zientzietan Lizentziatua. Kazetaria. TVEko Informazio Zerbitzuetan lan egiten du, #TD2n ematen den “Enfoque” saioan. “Mujeres en Red”-eko sortzailea, emakumeen jabeakuntza digitalaren defendatzaile feminista.

### MODERATZAILEA

#### **Verónica Fernández Ramos**

Udaleko Informazioaren Teknologien Saileko Informazioaren Kudeaketan teknikaria.

### HIZKUNTZA

gaztelania



### LAGUNTZAILEA

Udaleko Informazioaren Teknologien Saila



# “BERDINZINEMA” ZINEFORUMA

**ORDUTEGIA:** 18:30etik 21:00etara

**TOKIA:** Ortuño Aretoa - Montehermoso Kulturunea

**KOORDINATZAILEA:** Helena González Estévez

Zine eta Giza Eskubideetan aditua. ZINHEZBA Kultura Elkarte.

*Sarrera librea izango da toki guztiak bete arte*

Filmek ondoko hizkuntzatan izango dituzte **azpitoluak:**

Wadjda (Bizikleta berdea) (gaztelania), Francis Ha (euskara),

Los insólitos peces gato (gaztelania).

**Zeinu-mintzairako interpretaririk eta/edo haurtzandegirik behar baduzu,**  
hiru egun lehenago esan (945 16 13 45 / [igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org](mailto:igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org))

**Apirilak 24, osteguna**

FEMINISMOA



**WADJDA** (Bizikleta berdea)

*Zuzendaria: Haifaa Al Mansour*

**LABURPENA:** Wadjda Saudi Arabiako hiriburua den Riadeko aldirietan bizi den 10 urteko neska bat da. Nahiz eta muturrerainoko kontserbadorea den gizarte batean bizi, Wadjda dibertigarria eta ekintzailea da, baimenduaren eta debekatuaren arteko muga mugitzea gustatzen zaiona. Abdullah komeni ez zaion auzokidea du. Lagun Abdullahrekin liskarra izan ondoren, bizikleta eder bat salgai ikusten du. Bizikleta biziki desiatzen du Abdullah lasterketa batean irabazteko. Dena den, Wadjdaren amak ez dio baimenik ematen, bizikletak nesken ohorerako arriskutsutzat hartzen direlako. Orduan, Wadjdak dirua bere kabuz lortzea erabakiko du.

**FILMA**

Jatorrizko bertsioa arabieraz.

**ZINEFORUMAREN HIZKUNTZA**

gaztelania

**URTEA** 2012

**IRAUPENA** 98 minutu.



Maiatzaren 29a, osteguna

## FRANCES HA

*Zuzendaria:*  
*Noah Baumbach*

LABURPENA: Frances (Greta Gerwig) New Yorken bizi da, baina berez ez du apartamenturik. Neska dantza konpainia batean ikasten ari da, baina oraindik ez da benetako dantzaria. Sophie deituriko lagun mina dauka, baina momentu honetan ez diote elkarri hitz egiten. Francesek daukana baino askoz gehiago nahi du, baina alaitasun eta lasaitasun ulertezinez bizi du bere bizitza. Frances Ha gaztaroa, adiskidetasuna, anbizioa, erronka personalak, leialtasuna eta guztia-  
ren gainetik optimismoari buruzko alegia modernoa da.

Ekainak 12, osteguna

## LOS INSÓLITOS PECES GATO

*Zuzendaria: Claudia Sainte-Luce*

LABURPENA: Claudiak, neska gazte isila eta pentsakor batek, supermerkatu batean lan egiten du, saltxitxak saltzen. Bakardade jasanezin honi aurre egiten ez jakitearren, ospitale publiko batean larrialdietako gelan amaitzen du, apendizitisak jota. Bertan Martha ezagutzen du, ondoko ohean ospitaleratuta dagoen emakumea. Martha seme-alabekin bizi da eta pixkanaka Claudiaren konfiantza bereganatzen du. Familia honek ematen dion orekak Martharekin laguntasun harremana sortzea ahalbidetzen dio, eta harreman hori gero eta estuagoa izango da.

### FILMA

Jatorrizko bertsioa ingelesez.

**ZINEFORUMAREN HIZKUNTZA**  
euskara

**URTEA** 2012

**IRAUPENA** 86 minutu.



### FILMA

Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz.

**ZINEFORUMAREN HIZKUNTZA**  
gaztelania

**URTEA** 2013

**IRAUPENA** 95 minutu.



# “ORDU BIOLETA”

## IRAKURLE FEMINISTEN KLUBA



**Apirilaren 9a, maiatzaren 21a, ekainaren 18a.**

**ORDUTEGIA:** 18:30etik 20:30era.

**TOKIA:** 3. Hezkuntza lantegia – Montehermoso Kulturunea.

**KOORDINATZAILEA:** Begoña Etayo Ereña. Generoan eta garapenerako lankidetzan aditua. María de Maeztu Forum Feministako kidea.

Hilero hirugarren asteazkenean bilduko gara alde zuretik irakurritako liburu edo artikulua jakin bati buruz hitz egiteko eta iritziak trukatzeko. Emakumeen talde kontzientzian aztertzeak aukera emango diguten zenbait eleberri, poema, saiakera, iritzi-artikulu, eta abar ikusiko ditugu. Laburbilduz, elkarrekiko eremu bat sortuko dugu, non feminismoak gure bizitzak aberats ditzakeen.

### IZENA EMATEKO ETA BERRIZ IZENA EMATEKO EPEA:

- Irakurle Feministen Kluba 2013/14 ikasturtean zehar egiten den jardueraren bat da. 2014ko II. hiruhilekoan berriz izena ematea posible da, baldin eta lekurik sortu bada.
- 2014ko II. hiruhilerako berriz izena ematea: 2014ko martxoaren 8tik 16ra.
  - 2014ko II. hiruhilerako leku libretan izena ematea: 2014ko martxoaren 20tik apirilaren 2ra.

### NORI ESKAINIA

Emakumeei

### HIZKUNTZA

gaztelania

### TALDEA

gutxienez 10 / gehienez 20

### HIRUHILEKO PREZIOA

Abonatuak: 5,04 €

Ez abonatuak: 8,40 €



FEMINISMOA

### LAGUNTZAILEA

Udal Liburutegien Sarea.

### INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEAK:

010 / Gizarte Etxeak eta Kirol

Instalazioak /

[www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna](http://www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna)


**Hautzandegirik** behar baduzu, hiru egun lehenago esan (945 16 13 45 / [igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org](mailto:igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org))

# LANTEGIAK

## INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEAK:

010, Gizarte Etxeak eta Kirol Instalazioak,  
[www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna](http://www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna)

**Hurtzandegirik** behar baduzu, hiru egun lehenago esan  
(945 16 13 45 / [igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org](mailto:igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org))



**(\*)** Langabezian: dagokion prezioari %15eko hoberia. Kasu honetan izen-ematea gizarte etxeetan eta Kirol Instalazioetan egin beharko da, izena emateko aldiari dagokion ziurtagiria aurkezteko beharra izanik. Ziurtagiri hau Lanbiden eskatu beharko da, ikastaroan izena eman aurretiko 7 egunetan

# POSTA ELEKTRONIKOA ERABILTZEA ETA INTERNE- TEN OINARRIZKO ERABILERA

Apirilak 3 (osteguna), apirilak 4 (ostirala), apirilak 8 (asteartea), apirilak 9 (asteazkena), apirilak 10 (osteguna) eta apirilak 11 (ostirala). Ordutegia: 18:30etik 20:30era

Lantegi honetan ikasiko dugu posta elektronikoaren bidez nola komunikatu, baita Interneten nabigatzeko beharrezkoak ditugun zenbait oinarrizko gaitasun eskuratu ere. Internet eta Informazio eta Komunikazioko Teknologia pertsonen zerbitzura daude eta oso garrantzitsua da emakumeen jakintzak eta ezagutzak ikusaraztea eta agerraraztea Interneten, onarpena eta berdintasuna lortu nahi baditugu.

PRESTATZAILEA

***Mentxu Ramilo Araujo***

Politika eta Administrazio Zientzietan doktorea. Ikerlaria. Teknologia erremintetan prestatzailea.

## TOKIA

MONTEHERMOSO  
KULTURUNEA  
Ordenagailuen aretoa

## NORI ESKAINIA

55 urtetik gorako emakumeei

**HIZKUNTZA** gaztelania

## TALDEA

gutxienez 8 / gehienez 12

## IZENA EMATEKO EPEA

Martxoaren 20tik lantegiak hasi baino astebete lehenagora arte.

## PREZIOA

Abonatuak: 10,32 €

Ez abonatuak: 17,04 €

(\*) Langabezian egoteagatik:  
%15eko hobaria (ikusi 13. orr.)



KOMUNIKAZIOA  
ETA GAITASUNAK

LAGUNTZAILEA

Udaleko Adinekoen Zerbitzua.



# FEMINISMOA PERSPEKTIBAN. GURE HISTORIA BERRESKURATZEA

Apirila: 10-24, maiatza: 8-15-22-29, ekaina: 5 (ostegunak).  
Ordutegia: 18:00etatik 20:30era

Lantegi honen helburua da ibilbide bat egitea emakumeen askapenerako borrokan zehar, baita Mugimendu Feministan zehar ere. Garai eta kultura-testuinguru ezberdinetako teoria nagusiak, gertakari esanguratsuenak eta feminismoaren eboluzioa aztertuko dira. Feminismoa pasa den mendetik hona egon den iraultzarik garrantzitsuenatzat jotzen da. Izan ere, feminismoak, edo feminismoek, gizakien bizitzaren arlo anitzak kolokan jarri ditu, eta egunerokoak bihurtu diren diskurtsoak sortzen joan dira. Hala ere, ez dira ezagunak jatorriak, protagonistak eta lorpenak, nahiz eta genero berdintasuna eta mundu bidezkoago bat lortzeko beharrezkoak diren eraldaketan oinarritzko erreferentea izan.

PRESTATZAILEA

***Gladys Giraldo Velásquez***

Arabako Emakumeen Asanbladako kidea.

## TOKIA

MONTEHERMOSO

KULTURUNEA

Salcedo aretoa

## NORI ESKAINIA

Emakumeei

**HIZKUNTZA** gaztelania

## TALDEA

gutxienez 10 / gehienez 20

## IZENA EMATEKO EPEA

Martxoaren 20tik lantegiak hasi baino astebete lehenagora arte.

## PREZIOA

Abonatuak: 15,05 €

Ez abonatuak: 24,85 €

(\* Langabezian egoteagatik:  
%15eko hobaria (ikus 13. orr.)



FEMINISMOA

# GENEROA, LIDERGOA ETA ADIMEN EMOZIONALA

Maiatzaren 6, 13, 20, 27an eta ekainaren 3an (astearteak).  
Maiatzaren 9 eta 16an (ostiralak).  
Ordutegia: 18:00etatik 20:30era.

Lidergo-gaitasuna askotan gure lan esparruarekin soilik lotzen dugun kontzeptua da, baina lidergoa kontzeptu konplexua da eta gure bizitza pertsonal eta sozialaren arlo askotan garatzen den gaitasuna da. Lidergo-gaitasuna oso lotuta dago trebetasun teknikoaren erabilpenarekin (eskuordetzarako, talde lanerako, gatazken konponbiderako, motibaziorako gaitasuna,... ) eta trebetasun eta gaitasun emozionalen garapenaren hobekuntzarekin; hau guztia, jabekuntza pertsonal eta sozialaren prozesu batean, non mugatzen gaituzten genero baldintzapenak atzean uztea beharrezko bihurtzen den, gure ahalmenak ahalik eta gehien profitatuko baditugu.

PRESTATZAILEA

**Miriam Ocio Saenz de Buruaga**

Psikologoa eta komunikazioan eta generoan aditua.

## TOKIA

MONTEHERMOSO

KULTURUNEA

Betolaza aretoa

## NORI ESKAINIA

Emakumeei

## HIZKUNTZA

gaztelania

## TALDEA

gutxienez 10 / gehienez 20

## IZENA EMATEKO EPEA

Martxoaren 20tik lantegiak hasi baino astebete lehenagora arte.

## PREZIOA

Abonatuak: 15,05 €

Ez abonatuak: 24,85 €

(\*) Langabezian egoteagatik:  
%15eko hobaria (ikus 13. orr.)



KOMUNIKAZIOA  
ETA GAITASUNAK



# JENDAURREAN HITZ EGITEKO TEKNIKAK

Maiatzaren 9 eta 16an (ostiralak), 16:30etik 20:30era, eta maiatzaren 10 eta 17an (larunbatak), 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Jendaurrean hitz egiteko, badira zenbait teknika erabilgarri, eta horiek lantegi honetan garatu eta landuko ditugu. Gainera, hizkera ez sexista erabiltzen ikasiko dugu, arlo guztietan emakumeen agerpena sustatzeko, hala nola hainbat diskurtso eta ahozkoa ez den komunikazioa.

PRESTATZAILEA

***Esti Redondo Tirado***

Kazetaria eta Hezitzailea.

## TOKIA

IPARRALDE G.E.  
5. Lantegia

## NORI ESKAINIA

Emakumeei

**HIZKUNTZA** euskara

## TALDEA

gutxienez 10 / gehienez 20

## IZENA EMATEKO EPEA

Martxoaren 20tik lantegiak hasi baino astebete lehenagora arte.

## PREZIOA

Abonatuak: 20,64 €

Ez abonatuak: 34,08 €

(\* Langabezian egoteagatik:  
%15eko hobaria (ikus 13. orr.)



KOMUNIKAZIOA  
ETA GAITASUNAK

LAGUNTZAILEA  
Udaleko Gizarte  
Etxeen Zerbitzua.



# ZAPALDUAREN ANTZERKIA

Maiatzak 17 (larunbata) 10:00etatik 14:00etara eta  
16:00etatik 20:00etara, eta maiatzak 18 (igandea)  
10:00etatik 14:00etara.

Egun, gizarte irudikapenak emakume-ereduaren proiektzioa egiten du indar handiz eta emakumeon bizitzan sakonki sartzen da, irudizko “berdintasunean” bizi garelako argazkia helarazi nahian. Eredu hori identifikatzea, zalantzan jartzea eta eraldatzea da lantegi honen helburu nagusia, zapalduaren antzerkia metodologian oinarriturik. Espazio hori sortzeak, aurreiritzirik eta konplexurik gabekoa, gure benetako nahiei bidea zabalik, nor eta nolakoa izan nahi dudana erabakitzeke boterearen atea irekitzen dit.

Zapalduaren antzerkiaren ariketa eta jolas sistemak aberastasun handia ekartzen digu, eta gaitasun handitzen digu ezarrita dagoen ordenatik haratago ikusteko, entzuteko, sentitzeko eta pentsatzeko, gure burua jardunean ikusiaz, antzerkiaren arte boteretsuaren bidez.

## PRESTATZAILEA

**Belén Nevado Méndez**

Antzerkigintzan formazioa, antzerki konpainia batzuetan aktore egiten du lan, 1999an “Detritus teatrus” konpainia sortu zuelarik.

## TOKIA

LANDAZURI KIROLDEGIKO  
Gimnasioa.

## NORI ESKAINIA

Emakumeei

**HIZKUNTZA** gaztelania

## TALDEA

gutxienez 10 / gehienez 20

## IZENA EMATEKO EPEA

Martxoaren 20tik lantegiak hasi  
baino astebete lehenagora arte.

## PREZIOA

Abonatuak: 10,32 €

Ez abonatuak: 17,04 €

(\*) Langabezian egoteagatik:  
% 15eko hobaria (ikus 13. orr.)



KULTURA  
BIRDEFINITZEA

## LAGUNTZAILEA

Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzua.

# (NIRE BURUA) ZAINTZEN IKASI

Maiatzaren 23a (ostirala), 16:30etik 20:30era.

Maiatzaren 24a (larunbata), 10:00etatik a 14:00etara.

Emakumeok beste pertsonen zaintzaile rola egiten jarraitzen dugu: umeak, bikotea, adineko pertsonak... Lantegi honetan aztertuko dugu zaintzea zertan datzan eta zer dakarren emakumeentzat, eskubidea ala egin beharra. Zaintza nolakotasuna aztertuko dugu, zaintza desioa dela zein bete beharra dela, baita zaintzeagatik eta "maitasunagatik" egiten ditugun ukoak. Rol honen aurrean, belaunaldiengatik zailtasunak eta jarrera desberdinak topatzen ditugu, nahiz eta sakonean zainketak partekatu, izan ere, "emakumeak beste emakume batzuek zainduak dira". Baina, beste modu batez zaindu ahal dugu? Mugak jarri ahal ditugu? Nola negoziatu nire buruarekin ama txarra, alaba txarra, zaintzaile txarra... ez sentitzeko? Gure burua zaintzeari buruz ere hausnartuko dugu eta horrek nire buruarekin dakarkidan erantzukizuna, nire bizi kalitatea hobetzeko.

## PRESTATZAILEA

**Inmaculada Merino de Castro**

Emakumeen jabekuntzan eta emakumeen aurkako indarkeriarekiko esku-hartzean aditua

### TOKIA

IPARRALDE G.E.  
2. Lantegia

### NORI ESKAINIA

Emakumeei

**HIZKUNTZA** gaztelania

### TALDEA

gutxienez 10 / gehienez 20

### IZENA EMATEKO EPEA

Martxoaren 20tik lantegiak hasi baino astebete lehenagora arte.

### PREZIOA

Abonatuak: 6,88 €

Ez abonatuak: 11,36 €

(\*) Langabezian egoteagatik:  
%15eko hobaria (ikus 13. orr.)



ANTOLAKETA  
SOZIAL  
ERANTZUKIDEA

### LAGUNTZAILEA

Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzua.

# EMAKUME BELTZAK EUSKADIN: IDENTITATEAK ETA AHALDUNTZEA

Maiatzaren 30a (ostirala), 16:30etik 20:30era eta  
maiatzaren 31a (larunbata), 10:00etatik 14:00etara

Afrikatik Europarako migrazioak eztabaidagai politiko eta humanitario bihurtu dira. Migrazio hauek zer testuingurutan gertatzen diren aztertuko dugu eta zein den emakume beltzen egoera. Emakume migratzaile beltzen irudikapenak gabezia handiko emakume gisa aurkeztu dituzte, eraldaketa politiko eta sozialerako gaitasunik gabeak. Emakume horiek, ordea, aniztasuna eta eskubideberdintasuna abiapuntu izanik, bizitzeko inguru egokiak eraikitzeko garatzen dituzten aldaketa prozesuak ezagutuko ditugu. Bukatzeko, emakume beltzen autonomia eta kontzientziazio feminista sustatzeko eta bultzatzeko jarraibideak aurkeztuko ditugu.

PRESTATZAILEA

*Jeanne Rolande Dacougna Minkette*

Inmigrazioan, Berdintasunean eta emakume etorkinen Jabekuntzan prestatzailea eta aholkularia. Garaipen Emakumeen Elkarteko kidea.

## TOKIA

ALDABE G.E. Askotarako gela

**NORI ESKAINIA** Emakumeei

**HIZKUNTZA** gaztelania

**TALDEA** gutx. 10 / gehienez 25

## IZENA EMATEKO EPEA

Martxoaren 20tik lantegiak hasi baino astebete lehenagora arte.

## PREZIOA

Abonatuak: 6,88 €

Ez abonatuak: 11,36 €

(\*) Langabezian egoteagatik:  
%15eko hobaria (ikusi 13. orr.)



**KULTURA-ANIZTASUNA  
ETA ELKARTASUNA**

LAGUNTZAILEAK

Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzua  
eta Norabide/Kulturartekotasun Atala  
(Udaleko Gizarteratze Zerbitzua)

# GENERO INDARKERIAREN AURKAKO OSOKO LEGEAREN BENETAKO EZARPENAREN AZTERKETA, GISA ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

Ekainaren 6a (ostirala), 16:30etik 20:30era eta  
ekainaren 7a (larunbata), 10:00etatik 14:00etara.

Genero indarkeriaren aurkako osoko legea indarrean jarri zenetik 10 urte pasa dira. Lantegi honetan legearen benetako ezarpena aztertuko dugu, emakumeen giza eskubideen nazioarteko araudiak, espainiar estatuan loteslea denak, ezarritakoa oinarri hartuta. Informazioa eta datuen aurkezpenaren bidez, legearen ezarpenerako aurrerapenak eta oztopo nagusiak identifikatuko dira honako arloei dagokielarik: osasun arloan antzematea, biktimei osoko arreta, babesa, justiziaren eskuragarritasuna eta ordainak jasotzeko eskubidea.

PRESTATZAILEA

**María Naredo Molero**

Jurista eta generoa eta giza eskubideetan ikerlari aditua.

## TOKIA

ALDABE G.E.

Askotarako gela

**NORI ESKAINIA** Herritarrei.

**HIZKUNTZA** gaztelania

**TALDEA** gutxienez 10 /  
gehienez 25

## IZENA EMATEKO EPEA

Martxoaren 20tik lantegiak hasi  
baino astebete lehenagora arte.

## PREZIOA

Abonatuak: 6,88 €

Ez abonatuak: 11,36 €

(\*) Langabezian egoteagatik:  
%15eko hobaria (ikus 13. orr.)

## LAGUNTZAILEAK

Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzua  
eta Udaleko Gizarte Gaien eta Adi-  
nekoen Saila.



**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI AURREA  
HARTZEA**

# EMAKUME BAZTERTUAK ETA MARJINALAK: GIZARTE BAZTERKERIA ETA MARJINA- ZIO PROZESUEI BURUZKO HURBILPEN TEORIKO BAT.

Ekainak 11 (asteazkena), 16:30etik 20:30era.

Ideologia baztertzailerak historikoki estigmatizazio, marjinalizazio eta gizarte bazterkeriaren prozesuen bitartez eraikitzen dira, zigortutako pertsonak ezberdintzat (eta gutxiagotzat) hartzen dituzte eta kontrolerako aukera sozialak legitimatzen dituzte, aukera horiei araua eta guztien ongiaren defentsarako joera egozten dietelarik.

Lantegi honetan aztertuko da nola, zergatik eta zertarako eraiki dituen gizarteak bere kategoria estigmatizatzaileak. Kategoria hauetan emakumeek duten zeregina aztertuko da, haien egoera ulertzen eta haiekin enpatizatzen saiatu, biktimizatu beharrean, hartzen dituzten erabakiak legitimatzen, eta beren estrategietan duintasuna eta borroka aitortu, diskurtso alternatiboen sorrera ahalbidetzeko.

PRESTATZAILEA

*Dolores Juliano Corregido*

Irakaslea eta antropologoa, gutxiengo etnikoetan eta generoan aditua.

## TOKIA

ALDABE G.E.

Askotarako gela

## NORI ESKAINIA

Herritarrei

## HIZKUNTZA

gastelania

**TALDEA** gutx. 10 / gehienez 25

## IZENA EMATEKO EPEA

Martxoaren 20tik lantegiak hasi baino astebete lehenagora arte.

## PREZIOA

Abonatuak: 3,44 €

Ez abonatuak: 5,68 €

(\*) Langabezian egoteagatik:  
%15eko hobaria (ikus 13. orr.)

LAGUNTZAILEAK

Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzua eta  
Udaleko Gizarte Gaien eta Adinekoen  
Zerbitzuen Saila



KULTURA-ANIZTASUNA  
ETA ELKARTASUNA

# BESTE JARDUERA BATZUK

## INFORMAZIOA JASOTZEKO ETA IZENA EMATEKO:

tel. 945 16 13 45 / [igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org](mailto:igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org)

**Hurtzandegirik** behar baduzu, hiru egun lehenago esan  
(945 16 13 45 / [igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org](mailto:igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org))

## EMAKUMEEN JABEKUNTZARAKO PROIEKTUETAN LIDERGOA EGIN

**Maiatza: 5-12-19 eta 26a; eta ekaina: 2 eta 9a  
(astelehenetan), 17:30etik 20:30era.**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Vitoria-Gasteizko III. Udal Planak (2014-2015) besteak beste Emakumeen Etxea sortu eta abian jartzea proposatzen du, proiektuaren sorreran komunikazio eta parte-hartzeko bideak sortzea proposatzen duelarik. Proiektu hau martxan jarri baino lehenago, lantegi honetan oinarrizko gaitasunak landuko ditugu proiektuak zuzentzeko, harremanak kudeatzeko eta aliantzak eraikitzeko gizabanakoaren errespetuan eta helburu komunen bilaketan oinarriturik.

### PRESTATZAILEA

**Maru Sarasola Anzola.** Generoan eta coaching prozesuetan berdintasuneko eta lidergo garapeneko aholkularia.

### TOKIA

ALDABE G.E.  
Askotarako gela

### NORI ESKAINIA

Elkarte / taldeetako emakumeei.

**HIZKUNTZA** gaztelania



IDENTITATEA, SUBJEKTU-  
BOTASUN FEMENINOA  
ETA BALIO-ALDAKETA

### LAGUNTZAILEAK

Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzua eta  
Udaleko Parte-hartzerako Zerbitzua

# “ETZAK LO HARTU” ANTZERKI-FORUMA

Maiatzaren 28a (asteazkena), 18:30etik 21:00etara.

“Etzak lo hartu” batez ere gizonei zuzendutako jarduera bat da, bi orduko iraupena du eta bi zatitan banatzen da: 30 minutu irauten duen “Etzak lo hartu” antzezpena batetik, eta foruma bestetik, gutxi gorabehera ordu eta erdikoa. Bigarren zati honetan, ikusleak talde txikitik banatuko dira antzezpenean ikusi eta entzun diren alderdiei buruzko hausnarketa hobeto bideratzeko.

Lan honetan jorratzen diren gaiak honakoak dira: maskulinitasunaren gizarte eraikuntza, genero indarkeria, erantzukidetasuna, bikote-harremanak, homofobia, parekidetasuna...

## PRESTATZAILEAK

Berdintasunaren aldeko **On:giz** Elkarte eta **Ander Azurmendi Ormazabal** aktorea.

## TOKIA

MONTEHERMOSO  
KULTURUNEA  
Ortuño Aretoa

## NORI ESKAINIA

18 eta 30 urte bitarteko gazteei.

**HIZKUNTZA** euskara



IDENTITATEA, SUBJEKTIBOTASUN FEMENINOA  
ETA BALIO-ALDAKETA

## LAGUNTZAILEA

Udaleko Gazteria Atala





# HERRITARREN ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO ZIBERFEMINISMOA

Ekainaren 3a (asteartea), 18:00etatik 21:00etara.

Lantegi honetan lanari ekingo diogu herritarren eskubideen defentsarako erreminta interesgarrienak eta estrategikoenak ezagutzeko eta nola erabili ikasteko. Ez dira tresna berriak, batzuk ezagutzen ditugu, baina bere ekintzarako boterea gutxiesten ari gara eta erabilerara eskasa ematen diegu. Hausnarketa egingo dugu eta sarean lan egiteko eta gure lan inguru propioak antolatzeko aukerarik onenak bilatuko ditugu, tokikotik globalera.

PRESTATZAILEA

**Montserrat Boix Piqué**

Informazio zientzietan lizentziatua. Kazetaria. TVEko Informazio Zerbitzuetan lan egiten du, #TD2n ematen den “Enfoque” saioan. “Mujeres en Red”-eko sortzailea, emakumeen jabekuntza digitalaren defendatzaile feminista

## TOKIA

MONTEHERMOSO

KULTURUNEA

Ordenagailuen aretoa

## NORI ESKAINIA

Elkarte eta taldeetako emakumeei.

**HIZKUNTZA** gaztelania



KOMUNIKAZIOA  
ETA GAITASUNAK

## LAGUNTZAILEAK

Udaleko Informazio Teknologien  
Saila eta Udaleko Parte-  
harterako Zerbitzua.

# OHARRAK



Lantegietan eta irakurle feministen klubean izena ematen dutenek, aukera izango dute Montehermoso Kulturunearen Dokumentazio Zentroaren mailegu-zerbitzua erabiltzeko jarduera zikloa hau amaitu arte. Dokumentazio Zentroari buruz gehiago jakin nahi izanez gero: [www.montehermoso.net](http://www.montehermoso.net)